

Kupo banaketa horizontalaren eredia Kontzertu Ekonomikoaren lehen aroan (1878-1937): 1925eko berriztapena

El modelo de distribución horizontal del cupo durante el primer periodo de vigencia del Concierto Económico (1878-1937): la renovación de 1925

The horizontal distribution model of the quota during the first period of the Basque Economic Agreement (1878-1937): the renewal of 1925

Erkoreka, Mikel.

Itun Ekonomikoaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako

Agiritegiaren ikertzailea (www.ehu.eus/ituna).

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

mikel.erkoreka@ehu.eus

Hartua: 2019.11.05

BIBLID [1136-6834, eISSN 2386-5539 (2019), 4; 75-97]

Onartuta: 2019.11.22

Artikulu honetan, Kontzertu Ekonomikoaren lehen indarraldi fasean funtzionatzen zuen kupo banaketa eredia analizatzen da (1878-1937). Behin kupoa Estatuarekin adosturik, lurralde bakoitzak egin beharreko ekarpena, ardatz horizontalean, Aldundien artean erabakitzen zen. Ekarpene koefiziente horizontalen banaketak errotik baldintzatzen zuen Aldundien autonomia finantzario tartea, eta ondorioz, haien gastu ahalmene propioaren bilakaera. Analisia, 1925eko kupo berriztapenaren ondorioz adosturiko banaketa horizontalaren kasu azterketan oinarrituko da.

Giltza-hitzak: Kontzertu Ekonomikoa. Itun Ekonomikoa. Autogobernua. Kupo. Ekarpeneak. Banaketa horizontalaren eredia.

En este artículo se analiza el modelo de distribución horizontal del cupo durante el primer periodo de vigencia del Concierto Económico (1878-1937). Una vez acordada la cuantía del cupo con el Estado, las Diputaciones negociaban entre sí la distribución de la aportación correspondiente a cada uno de los territorios. La determinación de los coeficientes horizontales de aportación condicionaba de raíz la evolución de la autonomía financiera de cada Diputación, y por ende, su capacidad de gasto propio. El análisis se basa en la distribución horizontal determinada tras la renovación del cupo de 1925.

Palabras clave: Concierto Económico. Autogobierno. Cupo. Aportaciones. Modelo de distribución horizontal.

This article analyses the horizontal distribution model of the quota during the first period of the Basque Economic Agreement (1878-1937). Once the amount of the quota was agreed with the State, the Basque provincial governments negotiated the distribution of the contribution for each of the territories. The determination of the horizontal contribution coefficients directly affected the evolution of the financial autonomy of the provincial governments, and consequently, on their own spending capacity. The analysis will be based on the horizontal distribution arranged under the quota renewal of 1925.

Keywords: Basque Economic Agreement. Self-government. Quota. Contributions. Horizontal distribution model.

1. SARRERA

Foru sistema 1876an indarrez deuseztatua izan ondoren, Espainiar gobernuak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek behin-behineko Kontzertu Ekonomikoa negoziatu eta adostu zuten 1878an¹. Kontzertu Ekonomikoa, ogasunaren alorrean nolabaiteko autonomia fiskal eta finantzario gaitasunak iraun zedin ahalbidetu zuen hiru Aldundien kasuan. Negoziazio korapilotsu eta ziurgabetasun egoera anitz gaudituz, hasierako behin-behineko kontzertupeko sistema hura denboran kontsolidatzea lortu zuten hiru Aldundiek².

Kontsolidatu bakarrik ez, sistemaren iraupena luzatu ahala, Espainiako Aldundi probintzialen aginteetara mugaturik zegoen eskumen esparrua gaintzen eta zabaltzen joan ziren. Finantzazio ahalmen propioa izateak, erkideko Aldundiena baino esku-hartze eremu zabalagoan jardutea ahalbidetu zien kontzertupeko Aldundiei³. Ikuspuntu juridikotik mugaturik egon arren, Estatuaren araudiaren kontra egiten ez zuten heinean, kontzertupeko Aldundiek eskumen sorta zabala gauzatzen jarraitu zuten 1878tik aitzina. Neurri handi batean, autogobernu administratibo eta politikoaren ohiturak eta finantza publikoak kudeatzeko foru garaitik zetorren inertiak jarraipena izan zuten 1878tik aurrera⁴.

Hogeigarren hamarkadarako, Kontzertu Ekonomikoa oinarritzat zuten autogobernu ekonomiko-administratibo sistema konplexu eta zabala finkatzea erdietsi zuten Aldundiek⁵. 1925eko epe luzerako kupo berriztapena eta 1926an onartu zen Kontzertu Ekonomikoaren gaineko aurreneko araudia, sistemak 1878az geroztik bizi izan zuten sendotze prozesu mailakatu baina irmoaren erakuslea izan ziren.

1. Nafarroako Foruak Eraldatzeko Legearen negoziazioaren ondorioz, Nafarroak bide propioa jarraitu zuen 1841az geroztik. Hitzarmen Ekonomikoaren argitan, Nafarroak berezko autogobernu fiskal eta finantzario eredia negoziatu zuen Estatuarekin. Gerora Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak negoziaturiko Kontzertu Ekonomikoaren sistemak, aintzakotzat hartu zuen Nafarroako Hitzarmena, harekin bistako parekotasunak gordetzen zituelarik. ARANBURU, Mikel. "Evolución de los Concierdos y Convenios económicos hasta 1936. Una perspectiva comparada". In: *Iura Vasconiae*, 10. Zkia., 2013.

2. ALONSO OLEA, Eduardo J. *El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y formación de un Derecho histórico*, Oñate: IVAP 1995.

3. OLABARRI, Ignacio, ARANA, Ignacio. "Las atribuciones de las Diputaciones vascongadas y su fundamento jurídico durante la Restauración". In: *Los Derechos Históricos vascos. (Actas del Congreso sobre los Derechos Históricos vascos celebrado en el seno del II Congreso Mundial Vasco, en Vitoria-Gasteiz, los días 13, 14, 15 y 16 de octubre de 1987)*, Oñate: IVAP, 1988.

4. AGIRREAZKUENAGA, Joseba. *Euskal herritarren burujabetza. Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz (1793-1919). Foruen bidezko erakundetzetik Autonomia Estatuturara*, Irun: Alberdania, 2012.

5. ALONSO OLEA, Eduardo J. *Continuidades y discontinuidades de la administración provincial en el País Vasco. 1839-1978. Una «esencia» de los Derechos Históricos*, Oñate: IVAP 1999.

Estatuaren eta kontzertupeko Aldundien arteko harreman fiskal eta finantzarioen sistema salbuespen kasu bat zen Espainiako barne antolakuntza eredu zentralistan. Espainiako Konstituzioaren izaera unitarioagatik ere, ogasunaren alorrean, *de facto*, Estatu konposatuak biziraun zuen. Francoren erregimenak 1937an Kontzertu Ekonomikoa Bizkaian eta Gipuzkoan indargabetu zuen arte, Espainiar Erresumaren baitan bost autoritate fiskalek jarduten zuten aldi berean: Estatuarena, Arabakoa, Bizkaikoa, Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa alegia.

Aipatu bezala, 1937ko urtea mugarri garrantzitsua izan zen Kontzertu Ekonomikoaren historian. Guda Zibilaren testuinguruan euskal kostaldeko probintziak konkistatu ondoren, Francoren erregimenak, kontzertupeko autogobernu sistema indargabetu zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. Era horretan, kostaldeko bi probintzien autogobernu eta erakundetze sistemak Espainiar Estatu unitarioaren antolakuntza eta funtzionamendu eskema uniformearen senean erabat asimilaturik gelditu ziren, Kontzertu Ekonomikoaren lehen indarraldi faseari amaiera emanez (1878-1937). Araban berriz, kontzertupeko sistemak indarrean jarraitu zuen. Kontzertu Ekonomikoaren etapa berri hau Frankismo garai osoan zehar luzatu zen. Berrogei urteko diktaduraren ondoren, 1979ko Gernikako Autonomia Estatutua eta 1981eko Kontzertu Ekonomikoaren legea oinarri dituen autogobernua berrezarri zen. Horrenbestez, Kontzertu Ekonomikoaren fase berri bati eman zitzaion hasiera. Lehen indarraldi faseko kontzertupeko sistemarekin alderatuz, gaur eguneko sistemak muin eta sustrai berdinak bai, baina oinarri juridiko eta funtzionamendu-logika gutzit desberdinak ditu.

Oinarrian, lehen aroko kontzertupeko harreman fiskal eta finantzario eskema nahiko simplea zen. Alde batetik, kontzertupeko Aldundiak itunduriko zergak kudeatzeko eta biltzeko autonomia zabala gauzatzen zuten. Bestetik, Espainiar gobernuarekin adosturiko urteko kupo finko bat ordaintzeko erantzukizuna hartzen zuten beraien gain. Behin kupo ordaindurik, Aldundien esku gelditzen zen autonomia finantzarioa, haien berezko gastuak eta politikak finantzatzeko erabiltzen zuten.

Kupoa ordaintzen zuten heinean, itunduriko zergak arautu eta kudeatzeko ia gutzizko askatasuna zuten hiru Aldundiek: zerga-tasak diskrezionaltasun osoz ezarri edo amnistia fiskalak onartzetik, zerga-kudeaketa zerbitzuak nahierara antolatzeraino⁶. Harmonizazio murrizteko testuinguru hartan, hiru probintzietako sistema fiskalen arteko desberdintasunak nabarmenak bezain ikusgaiak ziren. Hogeigarren hamarkadaren hasierarako, Arabako ogasun eredu arkaikoaren finantzazio iturri nagusia udal zerga-transferentziak izaten jarraitzen zuten; Erabileren gaineko zerga oraindik indarrean jarri gabe mantentzen

6. ERKOREKA, Mikel. "The Basque and Swiss fiscal systems building processes as a source of lessons for the European integration process". In: *International perspectives on fiscal federalism: the Basque tax system*, Reno: Center for Basque Studies - University of Nevada, 2018.

zelarik⁷. Bizkaian, berriz, Erabileren gaineko zerga ogasun probintzialaren bizkarhezurra zen. Gipuzkoako ogasun probintziala bere aldetik, Kontsumoen gaineko zergaren emaitzetan sostengatzen zen batik bat, Eskubide errealak eta transmisioak edota Tinbrea bezalako mozkin-marjina handiko bi zergak ia zamatuta gabe mantentzen zituelarik.

Kupoa, kontzertupeko sistemaren konexio punturik ikusgaiena zen. Hala ere, kupoaz gairik beste konexio puntu garrantzitsu batzuk ere bazeuden. Kupoaz gain, Estatuak, itundu gabeko edota partekaturiko zergak eta bestelako hainbat sarrera iturri emankor arautu eta zuzenean biltzen zituen kontzertupeko probintzietan. Kupoaren metodologian zentratuz, teoriarik, urtero ordaintzen zen kupoaren bitartez, kontzertupeko Aldundiek, Espainiako Ogasun Ministerioak kontzertupeko probintzietan zerga-bilketa era zuzenean garatzekotan jasoko lukeen diru kantitatea transferitzen zioten. Zenbateko zehatza hiru Aldundien eta Espainiar gobernuaren arteko negoziazioen bidez zehazten zen aldizkako berriztapenetan. Garaiko kontzertupeko sisteman, kupoak izaera finkoa zuen; beraz, negoziatioetan ezer ez zehaztekoan, berriztapen batetik bestera kupoaren zenbatekoa finko mantentzen zen. Haren izaera finkoa zela eta, hura negoziatzerako momentuan aurreikusiriko oreka egoera distortsionatzeko joera zuen; are gehiago, 1906az geroztik, kupo berriztapenak gero eta epe luzeagorako hitzartzen hasi ziren heinean. Besteak beste, kupoa ez zen ziklo ekonomikoaren edota prezioen aldaketetara egokitzen.

Aldundiek lau berriztapen orokor (1887, 1894, 1906 eta 1925) eta beste horrenbeste berriztapen partzial (1893, 1900, 1913 eta 1920) adostu zituzten Espainiar gobernuarekin 1878az geroztik⁸. 1925eko berriztapena, kontzertupeko sistemaren lehen indarraldi fasean adostu zen azkena izan zen. Bestalde, Errestaurazioaren erregimenean (1874-1923) kanpo adostu zen berriztapen bakarra izan zen; Primo de Riverak ezarritako Direktorio Militararekin negoziatu zelarik. Azpimarratu beharra dago, kupo berriztapena 1925ean adostu arren, 1927ko ekitaldian jarri zela indarrean.

Primo de Riveraren gobernuarekin negoziaturiko 1925ko kupo berriztapenak, Lehen Mundu Gerra ondorengo heldutasun eta garapen industrial egoerara egokitu zuen kupo finkoaren zenbatekoa. Espainiak gudaren aurrean neutral mantentzeko harturiko erabakiaren itzalpean, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresek itzelezko oparoaldia bizi izan zuten⁹. Aurrekari hauek kontuan izanik, Estatuak kupoaren gorakada nabarmena eskatu zien Aldundiei berriztapenerako negoziatio mahaian. Negozio korapilotsuen ondoren,

7. UGARTE, Javier. "Los presupuestos de la Diputación alavesa en el siglo XX: el impacto de la Guerra Civil y el primer Franquismo". In: *Historia Contemporánea*, 3. Zkia., 1990.

8. ALONSO OLEA, E. J. *El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y formación de un Derecho histórico*; 271-330 or.

9. ROJO, Juan Carlos. "Las consecuencias económicas de la guerra: la empresa vasca durante la Primera Guerra Mundial". In: *Revista de Historia de la Economía y de la Empresa*, 3. Zkia., 2009.

Kontzertuaren hastapenetik aplikatu zen kupo areagotze handiena adostu zen 1925ean. Ordaindu beharreko kupoaren zenbatekoa ia laukoiztu egin zen, 10.078.065,32 pezeta izatetik, 40.000.000 pezeta izatera pasatu zelarik. Kupoaren areagotzeaz gain, Crédito de la Unión Minera bankuaren porrotak¹⁰ eta Erabileren gaineko Epaimahai Mistoaren (*Jurado Mixto de Utilidades*) sorrerak¹¹, astungarri gehigarria bilakatu ziren ogasun probintzientzako. Hala ere, kontzertupeko Aldundiek gauzatzen zuten autogobernu ekonomiko-fiskal gaitasunari esker, betebeharrak berrien aurrean, haien aurrekontua aldebakarki egokitzeko ahalmena zeukaten. Sarrera aurrekontua doitzeko, besteak beste, erreforma fiskalen tresnara edota zorpetzera jo zuten.

Behin Estatu eta Aldundien arteko ardatz bertikaleko erlazio fiskalen eredia zehazturik, kontzertupeko erakundeen esku gelditzen ziren baliabide eta botere zein erantzukizunen banaketa barne esparruan erabakitzen zen. Kontzertupeko erakundeek barne esparruan antolatzen zuten banaketa eredia, nagusiki, bi mailatan erabakitzen eta negoziatzen zen:

- Aldundien arteko kupo banaketaren eredu horizontala. Behin kupoaren zenbateko finkoa Estatuarekin adosturik, lurralde bakoitzak egin beharreko ekarpena, ardatz horizontalean, Aldundien artean negoziatzen zen.
- Aldundien eta udalerrien arteko erlazioa. Behin Estatu eta Aldundien arteko eskumen esparrua eta kupo ordainketaren banaketa zehazturik, kontzertupeko erakundeen esku gelditzen ziren botere eta erantzukizunen banaketa eredia probintzia mailan erabakitzen zen. Besteak beste, udal finantzazio sistemak probintzia mailan zehazten ziren.

Artikulu hontan, orain arte ezer gutxi aztertua izan den Aldundien arteko kupo banaketa eredu horizontalean jarriko da arreta. Artikuluaren helburua, Kontzertu Ekonomikoaren lehen indarraldi aroan funtzionatzen zuen kupo banaketa ereduaren azterketa integrala egitea da. Ikerketa, 1925eko kupo

10. Bizkaiko Aldundiak Crédito de la Unión Minera bankuaren porrotaren erantzukizunei aurre egiteko erreskatea bere gain hartzeko konpromezua onartu zuen 1925ean. Erreskatea finantzatzeko, 60.000.000 pezetako zor jaulkipena burutu zuen. Arabako eta Gipuzkoako Aldundiek erreskatearengatiko zorraren ordainketaren parte bat ordaintzeko konpromezua hartu zuten baita. ALONSO OLEA, Eduardo J. "El Crédito de la Unión Minera. 1901-2002". In: *Historia contemporánea*, 24. Zkia., 2002.

11. 1927an martxan jarri zen Erabileren gaineko Epaimahai Mistoaren helburua, Erabileren gaineko zergaren aplikazioan lurraldetasun printzipioaren betearazpena bermatzea zen. Epaimahai Mistoaren sorreraren ondorioz, Estatuko ogasunak, Erabileren gaineko zerga-oinarriaren tarte esanguratsua bereganatu zuen kontzertupeko lurraldeetan: "la función del Jurado era determinar si una empresa, domiciliada en uno de los territorios, realizaba negocios en el otro. Si los realizase asignaría la cifra relativa de negocio en cada uno de los territorios (común y concertado). Sobre estas cifras relativas de negocios se fijarían las bases impositivas totales a pagar a cada administración". ALONSO OLEA, E. J. *El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y formación de un Derecho histórico*; 320-321 or.

berriztapenaren ondorioz adosturiko banaketa horizontalaren kasu azterketan oinarrituko da.

Azterketa, nagusiki, aurrekontu analisisian oinarrituko da. Hala ere, ez da soilik arlo numerikora mugatuko. Besteak beste eta ikerketaren izaera integrala bermatzeko, arreta berezia jarriko da esparru politiko-instituzionalean jazo ziren gertakari eta negoziaketaren azterketan. Ikerketaren informazio iturri nagusiak, Aldundien aurrekontu likidazioak, Aldundien konferentzien aktak eta Aldundien espediente eta dokumentazio ofizialak izan dira.

Artikulua, lau ataletan banatzen da:

- Kupo banaketa horizontalaren eredia Kontzertu Ekonomikoaren lehen aroan (1878-1937).
- 1925eko kupo banaketa horizontalaren akordioa.
- 1925eko kupo banaketaren oihartzuna Aldundien arteko harreman instituzionalean.
- Ondorioak.

2. KUPO BANAKETA HORIZONTALAREN EREDUA KONTZERTU EKONOMIKOAREN LEHEN AROAN (1878-1937)

Behin kupoaren zenbateko finkoa Estatuarekin adosturik, Aldundiek, haren banaketa zehaztu behar zuten ardatz horizontalean, erakunde bakoitzak egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa erabakitzeko. Estatuarekiko negoziaketa prozesuek sortarazten zuten zurrunbiloarekin konparatuz, kupo banaketa horizontalaren barne negoziaketa prozesua foku mediatikotik kanpo garatzen zen. Izaera teknikoagoa zuten negoziaketa hauek ez zuten oihartzun nabarmenik izan garaiko iritzi publikoan ezta prentsan¹².

Euskal lurraldeak bateratzen zituen probintziaz gaindiko erakunde juridiko iraunkorrik existitzen ez bazen ere – gogoratu, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bateratu zituen Eusko Jaurilaritza ez zela 1936rarte eratu–, euskal Aldundien – Nafarroa barne–, arteko harremana hertsia bezain jarjaria zen. Garaiko Aldundien konferentziak honen adierazle ikusgarria ziren: “una suerte de institución pública común para la coordinación de la acción de gobierno de las provincias Vascongadas frente a los problemas comunes, siendo llamada

12. GONZÁLEZ, Sonia, MERINERO, Asun, URIEN, Tatiana. *La opinión pública española sobre el Concierto Económico vasco 1876-1937*, Bilbao: Ad Concordiam, 2003.

en ocasiones la navarra como Diputación hermana”¹³. Aldizka biltzartzen ziren konferentzia hauetan, kolore eta izaera guztietako gai eta aferak jorratzen ziren. Aldundietako gobernukideekin batera, tekniko probintziales ere maiz hartzen zuten parte. Biltzar hauetan eztabaidaturiko gai zerrendei erreparatuz, Kontzertu Ekonomikoarekin eta oro har fiskalitatearekin loturiko gaiek presentzia handia izan zuten. Hala nola, kupo berriztapenen zein kupo banaketa horizontalaren gaineko aferak, konferentzia hauetan eztabaidatzen ziren.

Garaiko kupoaren banaketa horizontalaren ereduak, gaur eguneko baina askoz sinpleagoa zen. Estatuarekin adosturiko kupo berriztapenaren negoziatioekin batera, Aldundiek, haren elkar banaketa negoziatzen zuten baita ere. Adosturiko kupo oinarriaren banaketaren proportzioak, printzipioz, finko mantentzen ziren hurrengo berriztapenerarte. Hala ere, berriztapenen baldintzetan edozein aldizkako doikuntzarik zehaztekotan, hor bai, areagotze berriaren banaketa negoziagarria zen. Adibidez, 1906ko kupo berriztapenak 1916rako xedatuta zuen 500.000 pezetako doikuntzaren banaketarako proportzioak, areagotzea aplikatzeko momentuan bertan bernegoziatu ziren, kupo oinarriaren banaketa ukigabe mantendu zelarik¹⁴.

Laburbilduz, Aldundi bakoitzak, osoko kupoaren gaineko proportzio finko bat ordaintzeko erantzukizuna hartzen zuen bere gain kasuan kasuko berriztapenak iraun bitartean. Behin banaketaren proportzioa zehazturik, Aldundi bakoitzari zegokion, norbere aurrekontua egoera berrira orekatu eta egokitzea; Aldundien arteko elkar eraginak oso mugatuak zirelarik. Besteak beste, sistemak ez zuen inolako egokitzapen funts horizontalik barneratzen. Gaur eguneko ereduarekin kontrajarriz, arriskuan bat egin beharrean, Aldundien arteko arriskuaren zatiketa bat ematen zela esan daiteke; erakunde bakoitzak bere kabuz nahierara kudeatu zezan arrisku hura. Garaiko ekarpen ereduak, elkartasun printzipioa baina, autonomia printzipioa lehenesten zuen. Kupo banaketa horizontalaren ereduaren atzean, foru garaitik zetorren dinamika konfederala sumatzen zen. Lurren arteko elkarrekintza eta nortasun komunaren gainetik, lurralde bakoitzaren ikuspegi eta interesak gailentzen ziren.

Kupoa Aldundien nahitaezko betebeharrak izanik, haren banaketaren nondik norakoak, haien autonomia finantzarioaren bilakaera errotik baldintzatzen zuen. Autonomia finantzarioa eta haren eskutik, Aldundi bakoitzaren gastu propioaren bilakaera, hein handi batean, kupoaren gorabeheren menpe zegoen. Ondorioz, kupo berriztapenekin batera haien artean negoziatzen zuten kupo banaketaren mugarrin ezarpena berebiziko auzia zen hiru Aldundientzako.

Kupo banaketaren metodologiari zegokionez, ez zen formula edo irizpide tekniko sistematizaturik aplikatzen. Esate baterako, 1916ko 500.000 pezetako


13. AGIRREAZKUENAGA, Joseba, ed. *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*, 2. bolumen. Bilbao: Diputaciones Forales de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava, 1995.

14. *Ibid.*, 1213-1231 or.

kupo areagotzearen banaketa eztabaidatzerakoan, hiru irizpide jarri ziren mahai gainean: aberastasunarena, biztanleriarena eta aurrekontu analisiarena. Zein baino zein zehaztasun gutxiagokoa. Garaiko estatistika osagabe eta defizienteak zirela eta, aberastasunaren gaineko estimazioak ez ziren batere zehatzak. Biztanleriaren koefiziente soila erabiltzea aldiz, eskas bezain lausoa zen. Bestalde, desharmonizazio egoerak alde batetik eta estatistika fiskalen fidagarritasun gabeziak bestetik, aurrekontu analisiaren egokitasuna kolokan jartzen zuten. Bistako zailtasun metodologiko-kuantitibo hauengatik ere, hiru Aldundien arteko negoziaketa luze eta korapilotsuak medio, azkenean akordioetara heltzen ziren.

Kupo berriztapenen eskutik, kupo banaketaren proportzioak aldaketa nabarmenak jasan zituen Kontzertu Ekonomikoa 1878an indarrean jarri zenetik:

1. Grafikoa. Kupo banaketaren bilakaera (%)



Iturria: ALONSO OLEA, Eduardo J. *500 años de Hacienda Foral / Foru Ogasunaren 500 urte*, Bilbao: Ad Concordiam, 2001; 40. or.

Grafikoan antzeman daitekeenez, Bizkaiari esleituriko proportzioak joera gorakorra mantendu zuen Kontzertu Ekonomikoaren lehen aro osoan zehar. Probintzien bestelako garapen ekonomiko eta industrialaren ibilbideari erreparatuz, eboluzio honek logika bat gordetzen zuen. Alabaina, horrek ez zuen esan nahi banaketa eredia akats gabekoa zenik. 1925eko kupo berriztapenak agerian utzi zituen banaketa eredu honek sufritzen zituen hutsuneak.

3. 1925EKO KUPO BANAKETA HORIZONTALAREN AKORDIOA

Primo de Riveraren gobernuarekin negoziaturiko 1925ko kupo berriztapenak, Lehen Mundu Gerra ondorengo heldutasun eta garapen industrial egoerara egokitu zuen kupo finkoaren zenbatekoa. Kontzertu Ekonomikoa indarrean zegoenetik sufritu zuen areagotze handiena adostu zen, kupoaren zenbatekoa ia laukoiztu egin zelarik. 1925eko berriztapenaren ondorioz, Aldundiek ordaindu beharreko kupoaren zenbatekoa 10.078.065,32 pezetatik, 40.000.000 pezetara igaro zen. XX. mendeko lehen bi hamarkadetan Bizkaian emandako garapen industrial eta ekonomikoaren itzalpean, Bizkaiko Aldundiak %70,95eko koefiziente horizontala ordaintzeko konpromezua hartu zuen bere gain. Bizkaia onarturiko gorakada nabarmen honen ondorioz, Gipuzkoako eta Arabako ekarpen koefiziente horizontalak behera egin zuten 1906ko berriztapenarekin alderatuz, %25,12 eta %3,93an kokatuz hurrenez hurren.

Kontzertupeko Aldundiek gauzatzen zuten botere fiskalari esker, betebeharrak berrien aurrean, haien aurrekontua egokitzeko alde bakoari ahalmena zeukaten. Kupoaren aparteko areagotzearen aurrean, Aldundiek politika fiskalera eta zorpetzera jo zuten haien sarrera aurrekontua egoera berrira doitu eta erakunde bakoari berezko gastu ahalmen maila egonkor mantentzeko helburuarekin.

Kupo zaharretik kupo berriranzko trantsizio prozesuen bilakaera eta emaitzak bestelakoak izan ziren hiru probintzien ogasunetan. Arabako eta Gipuzkoako Aldundiak, ahuldurik ezik, indarturik irten ziren prozesu hartatik¹⁵. Bizkaiko ogasunak osteratu, ez zuten egokitze prozesua kontsolidatzerik lortu 1929ko krisi ekonomikoak eztanda egin zuen momenturako.

Kupo zaharretik kupo berriranzko egokitze prozesuan murgildurik zeudelarik, Aldundiek ustekabeko erronka finantzario astun bezain garrantz berri bati egin behar izan zioten aurre: 1929ko krisi ekonomikoa. Haien arteko egitura ekonomikoaren heterogeneotasuna zela eta, krisi ekonomikoak eta despenpleguak intentsitate desberdinetan erasan ziren hiru probintziei¹⁶. Merkatu internazionalari irekien zegoen Bizkaiko ekonomia industrialak, oso gogorki pairatu zituen krisiaren eta langabeziaren eztenak. Bigarren maila batean, Gipuzkoako ehun industrial dibertsifikatu eta atomizatuak, Bizkaikoak baino hobeto eutsi zion ziklo ekonomikoaren aldaketari. Azkenik, Araban, non lehen sektorea probintziako jarduera ekonomiko hegemonikoa izaten jarraitzen zuten, 1929ko krisi ekonomikotik eratorritako ziztadak askoz ere leunagoak izan ziren.


15. ERKOREKA, Mikel, "Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako finantza publikoak, Diktadura, 1929ko krisi ekonomiko eta II. Errepublikaren garaian (1925-1937). Suitzarekin aldaraketa eta federalismo fiskalaren teoriari ekarpena". Leioa: UPV/EHUko Tesi doktoralak, 2017; 487-505 or.

16. ERKOREKA, Mikel. "Bizkaiko krisi industrialaren azterketa (1929-1936): langabezia eta krisi fiskala". In: *Vasconia*, 40. Zkia., 2014.

Bizkaiko Aldundia berehala konturatu zen, 1925ean adostutako kupo banaketaren oinarriak ez zetozeela bat haren baliabideen bilakaerarekin. 1925eko kupo berriztapenaren itzelezko hazkundeari aurre egiteko Bizkaiko Aldundiak eginiko aurrekontu aurreikuspenak ez ziren bete. Lehenik eta behin, Erabileren gaineko Epaimahai Mistoaren ezarpenaren ondorioz, Estatuko ogasunak, probintziako Erabileren gaineko zerga-oinarriaren zati esanguratsua bereganatu zuen. Erabileren gaineko zerga, Bizkaiko Aldundiaren diru-sarrera nagusia zen. Bestalde, 1929eko krisi ekonomikoaren agerpenaren itzalpean, Bizkaiko Aldundiak itzelezko krisi fiskala pairatu zuen. Gipuzkoako eta Arabako ogasunen bilakaera aldiz, baikorragoa izan zen.

Ekarpen horizontalen izaera finkoa zela eta, Bizkaiko Aldundiak, bere kabuz aurre egin behar izan zion diru-sarrera arloko desbideraketaren ondorio finantzarioei; besteak beste, berezko gastu kapituluaren gaineko kontrol zorrotza aplikatuz. Beraz, 1925eko aurrekontu aurreikuspenaren desbideraketak, autonomia finantzarioan, eta honen eskutik, Bizkaiko Aldundiaren berezko gastu ahalmenaren galgatzean eragin zuen:


2. Grafikoa. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gastu propioaren bilakaera (1920-1935) (1920=100)



Iturria: ERKOREKA, M. *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako finantza publikoak*; 505-515 or. Hurrengo bi grafikoak iturri berdinean oinarritzen dira.

Gastu ahalmenaren areagotzeak, logikoki, zerbitzu probintzialen biztanleko gastu mailan eragin zuen zuzen-zuzenean:

3. Grafikoa. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleko gastu propioaren bilakaera (1920-1935) (1920=100)*




*Biztanleko kalkulua, 1930eko erroldan oinarritzen da. Baita hurrengo grafikoa.

Hiru Aldundien gastu propioak sufrituriko bestelako eboluzioa azaltzerako orduan, bi faktore azpimarratu behar dira. Lehen, kupo banaketa ereduaren zurruntasuna. Banaketa eredu finko honek probintzien arteko desoreka eta distortsioak sortzera kondenaturik zegoen, are gehiago, 1906az geroztik, kupo berriztapenak gero eta epe luzeagorako negoziatzen hasi ziren momentutik. Onerako zein txarrerako, kupo banaketa ez zen abagune ekonomikoaren edota Aldundien kasuan kasuko egoera finantzarioaren aldaketen eskutik doitzen. Bizkaiak txanponaren bi aurpegiak ezagutu zituen XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan¹⁷. Lehen Mundu Gerraren itzalpean jazotako aparteko mozkin fiskalei esker, Bizkaiko Aldundiaren tamaina eta zerbitzuen eskaintza beste bi Aldundiena baino gehiago hedatu zen. Aldiz, 1925eko kupo berriztapenaren eta 1929ko krisi ekonomikoaren zailtasunak medio, ogasun probintziala asfixiatu eta haren berezko gastu ahalmenaren martxa beste bi erakundeena baino atzeratuagoa gelditu zen.

17. ALONSO OLEA, Eduardo J. "La política presupuestaria de la Diputación de Vizcaya. 1876-1936". In: *Cuadernos de Sección. Historia y Geografía*, 23. Zkia., 1995.

Bigarren faktorea, zerga ahaleginarena zen. Koefiziente horizontalen metodologiak ez zuen zerga ahaleginaren aldagaia era efektiboan barneratzen kalkuluan. Egoera honek bistako distortsioak eragiten zituen garaiko oholdza fiskal guztiz desharmonizatua kontuan izanik. 1920an, Bizkaiko Aldundiaren biztanleko gastu propioa, Gipuzkoakoaren bikoitza zen. Baina era berean, Gipuzkoako Aldundiak, Tinbre eta Eskubide Errealak bezalako emankortasun handiko bi zerga kasik zergapetu gabe mantentzen zituen¹⁸. Gipuzkoako Kontsumoen zergan eman ahal zen nolabaiteko gainzamatzeak ez zuen inolaz ere “hutsune” hura konpentsatzen. Zerga-bilketak hogeigarren hamarkadan zehar Gipuzkoan jasan zuen itzelezko gorakada, probintziako zerga-sistemak “ezkutuan” zeukan elastikotasunaren erakusgarri ezinhobea izan zen. 1925eko kupo berriztapenaren ondoren Gipuzkoako zerga-bilketa probintziala ia laukoiztu egin zen bitartean, Bizkaikoa ez zen bikoiztu ere egin.

4. Grafikoa. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleko zerga-bilketaren bilakaera (1920-1935) (1920=100)



1930erako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleko zerga-bilketaren aldea %20 ra murriztu zen. Kupo ordaintketarengatik biztanleko gastua ordea, ia bikoitza zen Bizkaian. Gauzak horrela, 1930erako, bi Aldundien arteko biztanleko berezko gastu ahalmena kasik berdindu egin zen.

Gainera, azterketa honi ñabardura azpimarragarri bat erantsi behar zaio. 1930ean, Gipuzkoako hainbat zerga zuzen garrantzitsuren zerga-tasak,

18. Konparaketa Bizkaia eta Gipuzkoara mugatuko da. Arabak banaketan zeukan pisu txikia zela eta, norgehiagoka fiskal nagusiak bizkaitar eta gipuzkoarren artekoak izan ohi ziren.

Bizkaian baino nabarmen baxuago jarraitzen zuten egoten. Adibide gisa, hiru zerga adierazgarriren zergapetze taulak ditugu:

1. Taula. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien eta Estatuko Sozietate Anonimoen mozkinen gaineko zergapetze taula (1927-1929)

Kapitalarekiko mozkinaren ehunekoa / Si el beneficio representa por 100 del capital		Mozkinaren gaineko ehunekoa (%) / Por cien del beneficio			
Honetatik	Honetara	Espainia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
0	5	6	4	5	5
5	5,5	7	4,65	5,25	5,25
5,5	6	7,8	5,2	5,85	5,25
6	6,5	8,6	5,75	6,45	6
6,5	7	9,3	6,2	7,35	6
7	7,5	10	6,65	7,5	6
7,5	8	10,6	7,1	7,95	6
8	9	11,1	7,5	8,3	6,75
9	10	12	8	9	6,75
10	11	12,6	8,4	9,45	7,75
11	12	13	8,7	9,75	7,75
12	13	13,5	9	10,1	7,75
13	14	13,8	9,2	10,35	7,75
14	15	14	9,35	10,5	7,75
15		15	10	11,25	9

Iturria: GÓMEZ, José Antonio, MARTOS, Luis. *La Contribución sobre las Utilidades de la riqueza mobiliaria*, Madrid: Imprenta de la Ciudad Lineal, 1928; 105. or.; DIPUTACIÓN DE ÁLAVA. *Reglamento del Impuesto sobre las Utilidades de la riqueza mobiliaria de Álava*, Vitoria: Imprenta provincial, 1928; 27. or.; CÁMARA OFICIAL DE COMERCIO, INDUSTRIA Y NAVEGACIÓN DE BILBAO. *Las reformas tributarias provinciales*, Bilbao: La Editorial Vizcaína, 1927; 7. or.; DIPUTACIÓN DE GUIPÚZCOA. *Reglamento y tarifas para la aplicación y administración de la Contribución de Utilidades en Guipúzcoa*, San Sebastián: Impr. provincial, 1929; 42. or.

2. Taula. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien eta Estatu-
ondorengo ahaideen (seme-alabak) gaineko oinordekotzen zergapetze taula
(1927-1930)*

Honetatik	Honetara	Espainia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
	1.000,00	1,00	-	-	-
1.000,00	5.000,00	1,50	-	-	-
5.000,01	10.000,00	1,50	-	0,50	-
10.000,01	25.000,00	2,00	0,50	0,50	-
25.000,01	50.000,00	2,00	1,00	0,75	-
50.000,01	75.000,00	2,25	1,40	1,00	-
75.000,01	100.000,00	2,25	1,40	1,25	-
100.000,01	125.000,00	2,75	1,40	1,25	-
125.000,01	250.000,00	2,75	1,40	1,50	-
250.000,01	500.000,00	3,25	2,00	2,00	-
500.000,01	1.000.000,00	3,75	3,00	2,50	-
1.000.000,01	1.500.000,00	4,25	3,50	3,00	-
1.500.000,01	2.000.000,00	4,25	4,00	3,00	-
2.000.000,01	2.500.000,00	4,75	4,50	3,00	-
2.500.000,01	5.000.000,00	4,75	4,50	3,50	-
5.000.000,01		5,00	4,50	3,75	-

Iturria: BELDA Y SORIANO, Luis, AREAL, Felipe. *Manual práctico del Impuesto de Derechos Reales*, Almería: Imprenta J. Moya, 1929; 52. or.; DIPUTACIÓN DE ALAVA. *Tarifa general del Impuesto de Derechos Reales, aprobada por la Diputación de Álava, el 27 de enero de 1927*, Vitoria: Imprenta Provincial, 1927; 6. or.; VICIOLA, Juan Luis de. *Anuario del Comercio, Industria, Profesiones y Tributación del País Vasco. Año 1930*, Bilbao: Centro de Turismo y Fomento de Vizcaya, 1930; 803. or. *Gipuzkoan, ondorengo ahaideen oinordekotza eta transmisioak salbuetsita egon ziren 1931 arte.

3. Taula. Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien eta Estatuko ohiko Tinbrearen prezio taula (1926-1927)*

	Espainia	Bizkaia	Gipuzkoa
1. Mota	120	90	50
2. Mota	60	45	25
3. Mota	30	22,5	15
4. Mota	12	9	10
5. Mota	6	4,5	5
6. Mota	3,6	2,7	3
7. Mota	2,4	1,8	2
8. Mota	1,2	0,9	1
9. Mota	0,15	0,1	0,5
10. Mota			0,1

Iturria: MINISTERIO DE HACIENDA. *Ley del Timbre del Estado*, Madrid: Sucesores de Rivadeneyra, 1926; 9. or.; CÁMARA OFICIAL DE COMERCIO, INDUSTRIA Y NAVEGACIÓN DE BILBAO. *Las reformas tributarias provinciales*, Bilbao: La Editorial Vizcaína, 1927; 3. or.; DIPUTACIÓN DE GUIPÚZCOA. *Reglamento del Impuesto del Timbre*, San Sebastián: Impr. provincial, 1927; 5. or.

*Arabako Tinbrearen zerga-egitura desberdina zenez, konparaketatik kanpo utzi da.

Are eta 1925eko kupo berriztapenaren ondorioz martxan jarritako erreforma fiskal sakonen ondoren, kontzertupeko lurraldeetako zerga zuzenen zerga-tasak, orokorrean, Estatuarenak baino baxuago mantentzen ziren. Egia da, zergen kasuan kasuko presio maila efektiboa ebaluatzeko, zerga-tasez gaindiko beste hainbat faktore barneratu beharko lirakeela: salbuespenak, salbuetsitako minimoak, murrizpenak, kenkariak edota kudeaketaren efizientzia adibidez.

Hala ere eta hemen jorratzen ari garen auzira mugatuz, zerga-tasen eboluzioa adierazle esanguratsua da, Gipuzkoan hogeitahamargarren hamarkadaren lehen bosturtekoan onarturiko erreforma fiskalen emaitza, hein handi batean, zerga zuzen gehienen zerga-tasak Bizkaikoekin parekatzetik eratorri bait zen.

4. 1925 KUPO BANAKETAREN OIHARTZUNA ALDUNDIEN ARTEKO HARREMAN INSTITUZIONALEAN

Aldundien konferentzien aktek islatzen dutenez, 1925ean adosturiko koefiziente horizontalen banaketak ageriko oihartzuna izan zuen Aldundien arteko harreman instituzionalean. Kupoaren areagotzea alde batetik, eta krisi ekonomikoaren ziztadak bestetik, Bizkaiko Aldundiak konferentzietara jo zuen kupo banaketaren berrikuspen prozesu bat irekitzeko eskaera ofiziala mahai gainean jarriz. Jarraian aztertuko den hartu-emona II. Errepublikan zehar luzatu zen. 1931kako apirilaren 14an emandako II. Errepublikaren aldarrikapenaren ondorioz, Monarkia garaiarekiko dinamika politikoaren guztizko apurketa bat eman zen, gestore errepublikarrak aurrenekoz heldu zirelarik hiru Aldundien aginte postuetara¹⁹.

1925eko kupoaren berriztapenak zehazten zuenez, 1932ko ekitaldiaz geroztik, hiru Aldundiek 500.000 pezeta gehiago ordaindu behar zuten urteroko kupoan. Bizkaiak, gutxienez, 500.000 pezetako areagotzearen banaketa koefizienteak berrikusteko eskaera helarazi zien Arabako eta Gipuzkoako Aldundiei. Proposamena, Bizkaiko Aldundiko Ogasun saileko buruak aurkeztu zuen 1931kako abenduaren 18an Bilbon egindako konferentzian²⁰:

Hizo uso de la palabra para poner de manifiesto el menor esfuerzo que las provincias hermanas tienen que realizar para pagar los cupos del concierto al Estado y consiguientemente la procedencia de modificar la proporcionalidad actual de los pagos, por lo menos en cuanto a las quinientas mil pesetas con las que, a partir de primero de enero de mil novecientos treinta y dos se aumentará el Concierto.

En demostración de su tesis leyó datos oficiales y estados comparativos referentes al volumen presupuestario de las tres provincias, al número de impuestos establecidos en cada una de ellas y a los tipos de imposición de los impuestos.

Batzar berean, Ramón de Madariaga bizkaitarrak, haratago jo zuen; “expuso su criterio de ir a una revisión total de la proporcionalidad no solo en cuanto a las quinientas mil pesetas sino también en cuanto al total de los cupos señalados el año 1925”. Ordezkarri gipuzkoarra berriz, mesfidati agertu zen, “haciendo notar que en Vizcaya hay más riqueza, que esta provincia está más densamente poblada que la de Guipúzcoa y que el impuesto de consumos y la contribución industrial están establecidos con tipos más altos en Guipúzcoa

19. GRANJA, José Luis de la. *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca 1930-1936*, Madrid: Siglo XXI, 2008.

20. AGIRREAZKUENAGA, J., ed. *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*, 1419.

que en Vizcaya”.

Proposamena aztertzeotan gelditu baziren ere, 1932an zehar ezer gutxi aurreratu zen. Ondorioz, urte horretan ordaintzen hasi ziren 500.000 pezetako kupo areagotzea, automatikoki, 1925ean adosturiko koefiziente horizontal berdinak aplikatuz banatu zen. Edozein aldaketa burutzeko, hiru Aldundien arteko akordioa beharrezkoa zen. Gauzak horrela, Bizkaiko Aldundiak tinko eta temati eutsi zion, 1932ko abenduan gutun bana helaraziz Arabako eta Gipuzkoako Aldundiei. Kasu honetan, Gipuzkoako Aldundiak errotik errefusatu zuen Bizkaiko eskaera²¹.

Egoera oraindik eta tirabiratsuagoa bilakatu zen Gipuzkoak 1932an onarturiko erreforma fiskalaren ondorioz. Besteak beste, Gipuzkoako Aldundiak, ondorengo ahaideen oinordekotzak zergapetu, Sozietateen gaineko zergan, Bizkaiko zerga-tasa berdinak ezarri eta Tinbrearen gaineko itzelezko prezioen gorakada aplikatu zuen. 1935erako, Gipuzkoako biztanleko zerga-bilketa Bizkaikoarekin berdindu zen. Kupoaren izaera finkoa zela eta, Gipuzkoak erreforma fiskaletik lorturiko emaitza fiskal gehigarriak zuzen-zuzenean Aldundiaren berezko gastu ahalmena gizontzera bideratu ziren. Horrenbestez, Gipuzkoako Aldundiaren biztanleko gastu ahalmen iraunkorra Bizkaikoa baino maila nabarmen altuagoan kokatu zen. Hain ikusgaia izan zen areagotzea, non Gipuzkoako Kontulari nagusiak, barne informe batean, igoerak gobernuarteko harremanetan izan zezakeen eraginaz ohartarazi ziola Gobernu probintzialari²²:

Claramente se deduce del examen de las cifras que preceden que, si el contribuyente vizcaíno aporta a su provincia una cantidad superior a la del guipuzcoano, ello se debe solamente a la importancia de los cupos del Concierto Económico, que son proporcionales a la riqueza, pero que, en cambio, los servicios provinciales absorben, en Guipúzcoa una cantidad considerablemente superior, cuyo exceso equivale a 29,32% o a 42,20%, según que se incluyan o no entre los servicios, los costeados por medio de créditos extraordinarios.

Y no ha de olvidarse que se compara a Guipúzcoa con la provincia [Bizkaia] que tiene fama de tener mejor dotados sus servicios, y que esta situación es susceptible de perjudicarnos considerablemente desde el punto de vista de nuestras relaciones con las Provincias hermanas en lo que se refiere al Concierto Económico.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako Aldundiak bereari eutsi zion tinko. Gauzak horrela, 1936ko maiatzean, Nafarroari arbitrajea eskatzea planteatu zen²³:

21. Kupo banaketaren auziaz 1933ko urtarrilaren 19an Gipuzkoako Aldundiak Bizkaikoari helarazitako gutuna. Gipuzkoako Artxibo Orokorra (GAO): JDIT-4170.

22. Gipuzkoako Aldundiaren Kontulari nagusiak 1934ko abenduaren 12an aurkeztutako informea. GAO: JDIT-3309/21-41.

23. 1936ko maiatzaren 23an Donostian egindako konferentziaren akta. GAO: JDIT-4170/31.

Se resolvió que la Comisión Gestora de Vizcaya formule un escrito fundando su petición a fin de que sobre ella puedan adoptar acuerdo las Diputaciones, sin que hasta tanto se agote la posibilidad de una inteligencia directa, se resuelva nada sobre la idea emitida por la Diputación de Vizcaya de que estas posibles diferencias de puntos de vista de Guipúzcoa y Álava que mantienen la inalterabilidad de la proporción, pueda ser resuelta por el arbitraje de la Diputación de Navarra.

Bizkaiko Aldundiak ekinean jarraitu bazuen ere, bai kupo oinarriaren zein 1932ko kupo areagotzearen banaketak aldagabe mantendu ziren 1937an Francoren erregimenak Bizkaian eta Gipuzkoan Kontzertu Ekonomikoa indargabetu zuen arte.

Ikus baita ere, AGIRREAZKUENAGA, J., ed. *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*, 1516-1518 ; 1562.

5. ONDORIOAK

Behin kupoaren zenbateko finkoa Estatuarekin adosturik, hura ordaintzeko mekanismoa ardatz horizontalean, Aldundien artean erabakitzen zen, kanpo interferentziarik gabe. Besteak beste, kupo banaketaren aferak Aldundien konferentzietan jorratzen zen.

Kupo banaketaren metodologiari zegokionez, ez zen formula edo irizpide tekniko sistematizaturik aplikatzen. Aldundiek, ekarpen mekanismoaren gaineko unean uneko negoziaketak eramaten zituzten aurrera. Estatuarekin jarraituriko negoziaketa ereduaren logika berdina ardatz horizontalean errepikatuz, kasuan kasuko kupo berriztapenen eskutik, Aldundi bakoitzak osoko kupoaren gaineko ekarpen finko bat ordaintzeko erantzukizuna hartzen zuen. Ekarpen koefiziente horizontalak zehazturik, Aldundi bakoitzari zegokion norbere aurrekontua egoera berrira nahierara orekatu eta egokitzea; Aldundien arteko elkar eraginak oso mugatuak zirelarik. Besteak beste, sistemak ez zuen inolako egokitzapen funtsik barneratzen. Gaur eguneko ereduarekin kontrajarriz, arriskuan bat egin beharrean, Aldundien arteko arriskuaren elkarbanaketa ematen zen. Garaiko ekarpen ereduak, elkartasun printzipioa baino, autonomia printzipioa lehenesten zuen.

Kupo banaketa ereduaren defizientzia eta hutsune nagusia, haren malgutasun falta zen. Sistemaren zurruntasuna zela eta, kupo banaketa ez zen probintzien kasuan kasuko abagune ekonomiko-finantzario edota zerga ahaleginaren eboluziora doitzen. Gainera, koefiziente horizontalen kalkuluak ez zuen zerga ahaleginaren aldagaia era efektiboan barneratzen. Horrenbestez, probintzien arteko desoreka eta distortsioak sortzera kondenaturik zegoen ekarpen mekanismo zen, are gehiago, 1906az geroztik, kupo berriztapenak gero eta epe luzeagorako hitzartzen hasi ziren heinean.

Desoreka edo distortsio hauek Aldundien autonomia finantzarioan, eta honen eskutik, erakundeen gastu ahalmenean eragiten zuten batik bat. Ondorioz, kupo berriztapenekin batera haien artean negoziatzen zuten kupo banaketa horizontalaren ezarpena berebiziko auzia zen hiru Aldundientzako. Horregatik, kupo banaketaren aferak oihartzun nabarmena zuen Aldundien arteko harreman instituzionalen esparruan.

6. INFORMAZIO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

6.1. Artxiboak

- Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegi Historikoa.
- Gipuzkoako Artxibo Orokorra.

6.2. Bibliografia

AGIRREAZKUENAGA, Joseba, ed. *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*, Bilbao: Diputaciones Forales de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava, 1995.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba. *Euskal herritarren burujabetza. Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz (1793-1919). Foruen bidezko erakundetzetik Autonomia Estatutura*, Irun: Alberdania, 2012.

ALONSO OLEA, Eduardo J. *500 años de Hacienda Foral / Foru Ogasunaren 500 urte*, Bilbao: Ad Concordiam, 2001.

ALONSO OLEA, Eduardo J. *El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y formación de un Derecho histórico*, Oñate: IVAP, 1995.

ALONSO OLEA, Eduardo J. *Continuidades y discontinuidades de la administración provincial en el País Vasco. 1839-1978. Una «esencia» de los Derechos Históricos*, Oñati: IVAP, 1999.

ALONSO OLEA, Eduardo J. “El Crédito de la Unión Minera. 1901-2002”. In: *Historia contemporánea*, 24. Zkia., 2002.

ALONSO OLEA, Eduardo J. “La política presupuestaria de la Diputación de Vizcaya. 1876-1936”. In: *Cuadernos de Sección. Historia y Geografía*, 23. Zkia., 1995.

ARANBURU, Mikel. “Evolución de los Concierdos y Convenios económicos hasta 1936. Una perspectiva comparada”. In: *Iura Vasconiae*, 10. Zkia., 2013.

BELDA Y SORIANO, Luis, AREAL, Felipe. *Manual práctico del Impuesto de Derechos Reales*, Almería: Imprenta J. Moya, 1929.

CÁMARA OFICIAL DE COMERCIO, INDUSTRIA Y NAVEGACIÓN DE BILBAO. *Las reformas tributarias provinciales*, Bilbao: La Editorial Vizcaína, 1927.

DIPUTACIÓN DE ÁLAVA. *Tarifa general del Impuesto de Derechos Reales, aprobada por la Diputación de Álava, el 27 de enero de 1927*, Vitoria: Impr. provincial, 1927.

DIPUTACIÓN DE ÁLAVA. *Reglamento del Impuesto sobre las Utilidades de la riqueza mobiliaria de Álava*, Vitoria: Impr. provincial, 1928.

DIPUTACIÓN DE GUIPÚZCOA. *Reglamento del Impuesto del Timbre*, San Sebastián: Impr. provincial, 1927.

DIPUTACIÓN DE GUIPÚZCOA. *Reglamento y tarifas para la aplicación y administración de la Contribución de Utilidades en Guipúzcoa*, San Sebastián: Impr. provincial, 1929.

ERKOREKA, Mikel. “Bizkaiko krisi industrialaren azterketa (1929-1936): langabezia eta krisi fiskala”. In: *Vasconia*, 40. Zkia., 2014.

ERKOREKA, Mikel. *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako finantza publikoak, Diktadura, 1929ko krisi ekonomiko eta II. Errepublikaren garaian (1925-1937). Suitzarekin aldaraketa eta federalismo fiskalaren teoriari ekarpena*, Leioa: UPV/EHUko Tesi doktoralak, 2017.

ERKOREKA, Mikel. “The Basque and Swiss fiscal systems building processes as a source of lessons for the European integration process”. In: *International perspectives on fiscal federalism: the Basque tax system*, Reno: Center for Basque Studies - University of Nevada, 2018.

GÓMEZ, José Antonio, MARTOS, Luis. *La Contribución sobre las Utilidades de la riqueza mobiliaria*, Madrid: Imprenta de la Ciudad Lineal, 1928.

GONZÁLEZ, Sonia, MERINERO, Asun, URIEN, Tatiana. *La opinión pública española sobre el Concierto Económico vasco 1876-1937*, Bilbao: Ad Concordiam, 2003.

GRANJA, José Luis de la. *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca 1930-1936*, Madrid: Siglo XXI, 2008.

MINISTERIO DE HACIENDA. *Ley del Timbre del Estado*, Madrid: Sucesores de Rivadeneyra, 1926.

OLABARRI, Ignacio, ARANA, Ignacio. “Las atribuciones de las Diputaciones

vascongadas y su fundamento jurídico durante la Restauración”. In: *Los Derechos Históricos vascos. (Actas del Congreso sobre los Derechos Históricos vascos celebrado en el seno del II Congreso Mundial Vasco, en Vitoria-Gasteiz, los días 13, 14, 15 y 16 de octubre de 1987)*. Oñate: IVAP, 1988.

UGARTE, Javier. “Los presupuestos de la Diputación alavesa en el siglo XX: el impacto de la Guerra Civil y el primer Franquismo”. In *Historia Contemporánea*, 3. Zkia., 1990.

ROJO, Juan Carlos. “Las consecuencias económicas de la guerra: la empresa vasca durante la Primera Guerra Mundial”. In: *Revista de Historia de la Economía y de la Empresa*, 3. Zkia., 2009.

VICIOLA, Juan Luis de. *Anuario del Comercio, Industria, Profesiones y Tributación del País Vasco. Año 1930*, Bilbao: Centro de Turismo y Fomento de Vizcaya, 1930.